



# XIV. EGINAREN ASTEA

## INGURUMENAREN ALDEKO EKINTZEN ASTEA

ANIMA ZAITEZ ETA PARTE HARTU!

2026ko  
MAIATZAK  
18-24

### ZER DA EGINAREN ASTEA?

EGINAREN ASTEA maiatzaren 22a barne hartzen duen astean ospatzen da, Nazioarteko Aniztasun Biologikoaren Eguna.


Ingurumenaren aldeko ekintzak sustatu nahi dituen ekimena da eta mota guztietako taldeak parte hartu dezakete: ikastetxeak, elkarteak, udal kolektiboak, familiak...

ASTE BETEKO epea ematen da ekintzak burutzeko.


### NOLA PARTE HARTU EGINAREN ASTEAN?

Bidali ezazu zure ekintza laburtzen duen dokumentua [aztertu@euskadi.eus](mailto:aztertu@euskadi.eus) helbidera, eta horrekin batera erantsi nahi dituzun elementuak: bideoak, argazkiak, aurkezpenak, etab.

**Lehiaketarako oinarriak** hurrengo orrialdean daude.



2025ko edizioan  
aurkeztutako ekintzak  
ikus itzazu



Edozein zalantzarako,  
esaiguzu.



747 42 99 33



[aztertu@euskadi.eus](mailto:aztertu@euskadi.eus)

[@aztertuprograma](https://www.instagram.com/aztertuprograma)



# XIV. EGINAREN ASTEA

## Lehiaketaren oinarriak



### HELBURUA ETA PARTE-HARTZAILEAK

Ingurumen aldeko ekintza konkretua partekatzea du helburu, adibidez: hitzaldiak, garbiketak, birziklatze kanpainak, irteerak, etab.

Parte-hartzaileak: ikastetxeak, elkarteak, udalak, familiak, enpresak edo banakako pertsonak.



### DATAK

XIV. EGINAREN ASTEA 2026ko maiatzaren 18tik 24ra ospatuko da. Aurkeztutako ekintza epe horren barruan burutu behar da, osorik edo partzialki.

### NOLA PARTE HARTU?

EGINAREN ASTEAN parte hartzeko, nahikoa da, harremanetarako datuekin batera, egindako jardueraren laburpena honako helbide honetara bidaltzea. Argazkiak, bideoak eta memoriak erantsi ahal izango dira.

Aurkezpen datak: **2026ko maiatzaren 25etik ekainaren 19ra.**

### BIDALITAKO LANEN ARGITARATZEA

Bidalitako lanak Aztertu Programaren web orrian ([www.euskadi.eus/aztertu](http://www.euskadi.eus/aztertu)) argitaratuko dira. Parte-hartzaileei erraztutako kontaktuaren bidez jakinaraziko zaie.



### SARIA

Aurkeztutako lan guztiak Eusko Jaurlaritzako eta Aztertu koordinatzen duen taldeko kideek osatutako epaimahaiak balioetsiko dituzte. Jasotako **ekintzarik esanguratsuena saritua izango da 2027ko EMANALDIA - Aztertu Sari Banaketan** (2027ko otsailean ospatuko dena).

#### AURKEZTUTAKO LANAK ERABILTZEKO BAIMENA:

Lehiaketara aurkeztutako lanak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku geratuko dira, eta lan horien kopiak egiteko eta zabaldu edo banatzeko baimena izango du, baita egoki deritzon komunikazio publikoko sistemaren bidez eta egoki deritzon helburuarekin lanak ezagutarazteko baimena ere. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskuratzen dituen baimen horien iraupena 6 urtekoa izango da eta nonahi gauzatu ahal izango ditu. Hala, esaterako, AZTERTU programaren aurtengo edizioan nahiz hurrengoetan sor litekeen edozein materialetan (apaingarri edo osagarri) erabili ahalko ditu lanak, baita ezagutzera eman AZTERTU programaren web gunean ere. Bestalde, parte-hartzaileen irudia modu berdinean erabili ahal izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak. Lehiaketara lanak aurkeztu dituztenek, ordea, ez dute EAEko Administrazioak egin ditzakeen erabilera horientatik guztiengatik diru-saririk jasotzeko eskubiderik izango.

#### LEGEZKO OHARRA:

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonaen Babesa eta eskubide digitalen bermea, ezarritakoari jarraiki, honako hau jakinarazi nahi dizugu: AZTERTU lehiaketara aurkeztu duzun lana saridun baldin bada, zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean gordeko dira. Fitxategi horretan gordetako datuak helburu hauetarako baino ez dira erabiliko:

·Zure lanak saria jasoko duela jakinarazteko.

·Sariak banatzeko ekitaldira zu gonbidatu ahal izateko.

·Dagokizun saria eman ahal izateko.

·Zure lana AZTERTU aldizkarian lan sarituen bilduman argitaratzen dugunean, norik egin den adierazi ahal izateko; beti ere zuk datu horiek azaltzearen aurkako adierazpenik egiten ez baduzu.

Fitxategiaren arduraduna Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza da.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta fitxategian agertzearen aurka egiteko eskubidea gauzatu nahi izanez gero, Sail horretako Zerbitzu Zuzendaritzara jo dezakezu: Donostia-San Sebastián 1, 2. solairua, Vitoria-Gasteiz 01010.